

## AGERIKO BILKURA

Uztailaren 21ean, Antzuolako Udaletxean, ageriko bilkura egin du Akademiak, goizeko 11:00etatik 12:30era, Ana Maria Toledo Lezeta euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia gauzatzeko.

Bildu dira:

- Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Henrike Knörr, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Jose Antonio Arana Martija, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Bernardo Atxaga, Pierre Charritton, Emile Larre, Txomin Peillen, Patxi Salaberri, Pello Salaburu, Ana Toledo, Patxi Zabaleta, Mikel Zalbide eta Antonio Zavala euskaltzain osoak. Ezin etorria adierazi du J.L. Davantek.
- Joseba Intxausti, ohorezko euskaltzaina.
- Urgazleak: Jose Antonio Aduriz, Xabier Altzibar, Xipri Arbelbide, Aurelia Arkotxa, Mikel Atxaga, Ricardo Badiola, Jon Casenave, Xabier Erdozia, Izaskun Etxebeste, Sebastian García Trujillo, Pruden Gartzia, Jose Mari Iriondo, Jabier Kaltzakorta, Maria Pilar Lasarte, Lourdes Otaegi, Rosa Miren Pagola, Elixabete Perez Gaztelu, Manu Ruiz de Urrestarazu, Koro Segurola, Patxi Uribarren, Miriam Urkia, Pello Telleria eta Juan Jose Zearreta.
- Erramun Osa batzordekidea.
- Lutxi Alberdi, Maixa Goikoetxea eta Amaia Okariz Euskaltzaindikoko langileak.

Ekitaldia, Jose Angel Zabalo Antzuolako alkatearen ongietorriarekin eta Andres Urrutia euskaltzainburauren agur-hitzekin hasi da. Juan San Martin zenaren lekua betetzera datorren Ana Toledori buruzko zertzelada nagusiak eman ditu, UZEIn lanean ezagutu zuenetik Deustuko Unibertsitatean irakasle izan arte eta Ondarroan Txomin Agirrerri buruzko tesia aurkeztera joan zenekoak gogoratuz.

Xabier Kintana idazkariak ekitaldiak izango dituen atal ezberdinen azalpen laburra egin du. Ondoren, Adolfo Arejita eta Jose Luis Lizundia euskaltzainek lagunduta, batzar aretora sartu da Ana Toledo Lezeta euskaltzaina, eta *Musen arnasatik Goi-arnasara, euskal letretan barrena* izeneko sarrera-hitzaldia irakurri du.

Ezer baino lehen, Juan San Martin zena ekarri du gogora Ana Toledok, haren bitzita eta lana goraipatuz: lanerako grina, alor asko landu eta garaiko erronkei erantzunak aurkitzen jakin izana. Euskal Literaturaren ikuspegi zabala eskaini du Ana Toledok hitzaldian zehar, garrantzi handiena izan duten garai eta joerak islatuz eta herrialde

eta euskalki guztietako idazle nagusienak aipatuz: Kontraerreforma, Erromantizismoa eta 1950eko hamarkadaren haustura.

Jean Haritschelhar euskaltzainak erantzun dio Ana Toledori, *60ko belaunaldiaren ongietorria* izeneko hitzaldia irakurriz. Ana Toledok euskal idazleak aztertu dituen bezala, Haritschelharrek Euskaltzaindiaren historia egin du, hasieratik gaur artekoa. Euskararen batasunaren inguruan, 1968an, sortu zen hizkuntza-iraultza aipatu du, eta horrek Akademiaren barnean izan zuen eragina. Orduan belaunaldi jakin suertatu zitzaion orduko erronkei aurre egitea. Ondoren, egitasmo garrantzitsuak gauzatzen hasi ziren: Orotariko Euskal Hiztegia, Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak, Hizkuntza Atlas, Onomastika eta Literatura batzordeen lana... Belaunaldi hartakoa izen zen Juan San Martin. Gaur ere euskaltzain gazteen belaunaldi berria sartzen hasia de Euskaltzaindian, eta horietakoa da Ana Toledo. Hitz hauekin amaitu du hitzaldia: «60ko belaunaldiko batek ongietorri bero batekin hartzen zaitu egun ospetsu honetan».

Hitzaldia amaitzean, denak zutik jarri direlarik, euskaltzainburuak euskaltzain oso berriari dagozkion agiria eta diploma eman dizkio. Gero, banan-banan, euskaltzain guztiek zoriondu dute.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria